

Paulina Azkargorta Berrio
Elorrio, Bizkaia
(1902)

Aurkibidea

Biografia



Elorrioko Berrio auzoko Etxetxo baserrian jaio zen. Gaztetan elur-zuloaren inguruko lanak gertutik ikusi zituen.

Zintak

ELO-043

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrek eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1994-05-01
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Bergarako Udala

ELO-045

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eguzkitza, Iñaki - Madariaga, Sabino
- **Data:** 1992-01-22
- **Iraupena:** 119 min
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Elurzuloaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ELO-043/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Neberia zelakoa zen. Elur-bola izugarriak batzen zituen gizon batek "Neberia" izenarekin ezaguna zen txabolan. Eskaera handia egoten zen uda sasoian.

Transkripzioa

- Neberia, neberia izeten zan zulo haundi bat, txabola bat, edur denporan, edur-bolak sartzen zien barruen. Gizon bat e dediketen zan e edurra batzen zeaittik orduen oingo moduen e oingo moduko adelantoik ez zeuen e, zera esan gura dot, frigorifiko ez zera, ez frigorifikoik eta holako adelantoik ez zeuen. Ta udako denporan edurra eitten zittuen ikusgarrixak. Oin e larogei urte ingurua danien nabil esaten, e? Ta gizon bat dediketen zan edur batzen zeaittik udan eukitzen eban eskabide haundixa ba hoteletarako, fondetarako, ta holako e tabernetarako ta, pixkat e fresketako. Ba e estimaziño haundixe eukitten eban. Ta berak e ikusten eban ba, ba zeoze etara leikiela, edurra batu ezker. Ta edur-bolak ikaragarrixak sartzen zittuen txabolan ta han egoten zien negu guztien. Ta gero udie etortzen zanien ta berua ba eskabide haundixa eukitten eban. E edurren eskabidia, ba gauzak hotz hotz hotzien eukittek, hotza frigorifikoik moduen.

- Bai, ez zauan eta.

- Ez zauan eukittek. Ba berak e, berak ikusten eban ba merezidu dabela gordetia, ta beste iñoi ez jakon akordetan ta gizon bat zan ta haure gizon hoi edur haundixak eitten zittuenien etortzen zan edurren bila ta edur-

bolak ikeragarrixak eitten zittuen. Hiru edo lau gizon ekartzen zittuen berakin, zeaittik hori batek eta bik ezin leikie eiñ, ta hiru edo lau gizon etortzen zien.

- Bonbero.
- Ta izena eukan Bonbero. Bueno, izena berena Juan baiña.
- Juan eta ze apellido zeukan? Badakizu?
- Bonbero ta apellidua ezin akordau.

2. Elurzulua nola betetzen zen

- **Erref:** ELO-043/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Elurzulua nola betetzen zen.

Transkripzioa

- Ta kuestiñua da ba bolok eiñ ta Bonberok dirijitzen zittuen, harek esaten otsen zer ein bi [biher] daben. Han han bolok eruaten zittuen baiña inddar haundixa biher zan horretarako, e? Ze karretilla baten eruen balittue baiña...
- Ez, bueltaka.
- Holan bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka-bueltaka lurretik, lurrien bueltaka-bueltaka-bueltaka ta ikusten giñuzen ta [...]buuum!
- Botatzen eben ta han geratzen zien ta ...
- Eskuaz edo pentsetan dot...
- Bai, bai eskuakin.
- Atia be haundixa zan e?
- Bai, bai, haundixa zan ta...
- Ta bolia barruraino faten zan.
- Hori da. Ta botatzen zittuen barrura bakotxien bat, bakotxien bat, bakotxien bat, ta gero ikusten ebenien “ bueno e, ixa bete da” baiña gutxienez dozena bat baiño gehixau bolak e? Ikeragarrixak zien, e? Oin momentu hontan ez naiz ondo gogoratzen, ezta? Baiña gutxienez dozena bat baiño gehixau bai zeaittik edurzulua, edurzulua zan bastante haundixa.

3. Uda sasoian elur-eskaera handia

- **Erref:** ELO-043/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Elurzulua betetzearen lanak. Uda sasoian elur-eskaera handia zegoen tabernetarako...

Transkripzioa

- Bonbero horrek e, ekartzen zittuen berak e esan dozu lau-bost gizon?
- Bai lau edo bost gizon ekartzen zittuen...
- Eta horrek e zer zeuzkan e jornalian edo eukiko zittuan?
- Bai e jornala pagetan otsen. Ba esaten otsen ba “emongo dotsuet jornala”. Orduen jornal txikixek izeten zien gero, e?
- Ez za akordauko zenbat, ezta?
- Zenbat? Orduen e egun guztirako bost bost pezeta asko izengo zan. E egunien egunera hori bihar hori eitten eben denporan egunien, eguna paseten eben e igual, ezta? Zeaittik bola asko ein biher izeten zan. Ta ba bueno bueno eguna total ez baiña nahastu eitten eben behintzat eguna, ta harek esango otsen bueno ba “etorten bazaie ta hoixe eitten bou [badou], ba emongo dotsuet honenbesteko bat”. Gehixen be bost pezeta emongo otsen, gehixau ez, zeaittik orduen ez zan irebazten diruik. Fabriketan bez ta iñun bez, danik eta ofizialik onena izenda be, danik eta ofizialik onena, esate baterako, arotzan, nahi argiñan, nahi... Honen aitteitta... Esatia gure izen dot. Ba gero ba Bonberok itxuria ondo urteten eban, udia, udako denporia allegeten zanian ta beruek haundixak ta jentiek gure izeten eban tabernetarako ta ba, ardaa freskua eukittek, edo bakizu, freskuria. Oin e zera egoten da, oin zelan, oin e beste modu baten arregleten die, ezta?
- Bai, frigorifikuek dao, ta neberak.
- Frigorifikuak, neberak, frigorifikuak. Geuk be hamen daukou esate baterako hemen gauzak fresko-fresko edarki eukitten dittu. Hamen, frigorifikua ba hemen gauzak ondo konserbeten zatzuz. Neberia ta horrek danok baiña, badaukou, baiña, orduen ez zeuen holako adelantoik.
- Ez ba. Paulina, eta ha gaiñeko txaboliak e ze ze harri zeaukan, harrizkua zan?
- Bai, harrixa, harrixa.
- Ha be harrixa zan.
- Bai bai harrixe, ta gero teillia gaiñien.
- Gero teillia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com